

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Gauaren zaindaria.
Potemkin.
Autoekoizpena.
Iraupena: 49'58".
11,50 euro.

Bi gitarrarekin, gaztetasuna eta eskarmentua batuta

OÑATIN PUNK-ROCK BIZIA eta gitarra beroak indarrean jarri zituen taldea bueltan dator bi urte isilik egon ostean. Latzenen sortzaile diren bi taldekidek metale-roen agurreko bira egin eta ostean baxu jotzaile berria bilatu behar izan zuten. Baina taldea indartuta dator: Aixibar abeslariak gero eta erregistro gehiago hartzen ditu eta bigarren gitarra jotzailea batu dute taldera; hala, gitarrek askoz protagonismo handiagoa hartu dute, eta pun-

teatze dezente dago. Estiloei dagokionez, iraganeko punk-rock adrenalinkoa albo-ratu eta hard-rock klasikora hurbildu dira, intentsitateekin eta giroekin jolastuz. Gainera, doinu itsaskorrak lortzeaz gain, tar-teka 70eko hamarkadako soinu psikodeliko eta pisutsuagoak ere jaso dituzte. Aloña azpian, The Cult, TRBNGR, Black Sabbath eta beste ere aurki daitezke.

www.myspace.com/potemkinband

Potemkin

«Mutiko gazte baten ilusioa dugu eta taldekide berriekin ikuskizuna biziagoa izango da»

Denbora luzea pasa da azkeneko aldiz taldearen berri izan genuenetik...

Bai. 2007ko udan jotzeari utzi genion, Joxe Mari eta Iker Latzen taldearekin bueltatu eta "Infernuko ateetan" azken bira egin zutelako. Jarraian Joxe Marik esana zeukan taldea utziko zuela eta baxu jotzaile berria lortu genuen. Eta, bide batez, betidanik buruan izan dugun bigarren gitarra jotzailea ere aurkitu genuen. Horren ostean, guztion artean abestiak

egin eta grabaketarako prestatzen egon ginen.

Zer da "laino rocka"?

Laino rocka ikus-entzuleek eta guk droga moduan konektatzen dugunean sortzen den emozio gehiketa da. Potemkin ez da ezer entzulerik gabe!

"Diruak du pozoitu" rock eszenako gauza asko? Askok aldatu da musika eszena Latzenen hastapenetatik?

Diskogintza gainbeheran dago. Horien balioa galdu da, taldeek bere

gain hartu dute, batez ere baliabide teknikoak merkatu direlako. Sorkuntza gehiena autoekoizpenera joan da eta Internetera; hortaz, orain askoz bitartekari gutxiago dago eta hori ona da. Guk autoekoizpenaren alde egin dugu. Gaur egungo taldeen eskaintza handia eta kalitatezkoa da. Kontzertuak egiteko ere aukera asko dago. Alde txarrean, pena da musika ordenagailuko artxibo bihurtu izana, eta kontzertuetan publiko gutxiago dagoela.

Esnatzean eta Berreskuratuk 70eko hamarkadako rock pisutsua, psikodelia eta stonerraren arrastoak dituzte.

Bai, agian orain arte Potemkinen egin dituen abesti desberdinenak dira, baina oso gustura gaude bien emaitzekin. Soinu desberdina, geldoagoa, baina une psikodeliko eta riff gogor asko dituztenak.

Iraganeko kontzertu erritmo handia berreskuratzeke asmoa duzue?

Bai. Mutiko gazte baten ilusioa dugu eta taldekide berriekin ikuskizuna biziagoa izango da. Neguan eta udaberrian gaztetxe eta areto txikiak lotzen gabiltza eta udarako jaietan jotzea da helburua. ■

